



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko otsailaren 7ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Emisio fokuen inbentarioa; 1.2. “Degradatutako ibaiertzen berriztapen ekologikoa” proiektua; 1.2. Tokiko Agenda 21: Planen Berrikuspena eta Ebaluaketa eta Segimendua.
- **2013 Kudeaketa Plana:** 2013ko Kudeaketa Plana onartu da, baita Udalei dagozkien kuotak ere. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal eta Udalen arteko lankidetzeta-hitzarmenak martxan jarriko dira eta kuotaren eskakizuna bidaliko da. Hitzarmenek orain arteko edukia izango dute baina 3 urteko iraupenarekin, hau da, legealdia amaitu arte: 2013-2014-2015 urteak.
- **Tokiko Agenda 21. Eskualdeko Ekintza Plana:** Aurretik bidalitako Eskualdeko Ekintza Planaren proposamenari behin behineko onarpena ematen zaio, eta Bulegoak ezaugarriak lantzen jarraituko du otsailaren 28rarte, gainontzeko tokiko planekin batera aurkezteko. Datorren batzordean behin betiko onarpena emango zaio dokumentuari. Bitartean, Bulegora proposamenak bidaltzea posible izango da hauek dokumentuan eransteke.
- **Nerbioi-Ibaizabaleko ikastetxeetan mugikortasun jasangarria sustatzeko proiektu pilotua: Eskola Bidea:** EVEk emandako diru-laguntzaren berri eman da, eskatutakoaren %50a izanik, BEZ kanpo. Aholkularitza teknikoa kontratatzeko kudeaketa nola egingo den eta proiektu bakoitzaren irismena nola zehaztuko den azaldu da.
- **Nerbioi-Ibaizabaleko ikastetxeetan mugikortasun jasangarria sustatzeko jarduerak: Segurtasun Neurrien Azterketa:** ikus aurreko puntua.
- **Hondakinen bilketa: gai organikoa:** Hiri hondakinen (gai organikoa) bilketaren esperientzia batzuk bisitatu eta udal arduradunen balorazioak ezagutzeko hainbat bisita antolatzea erabaki da. Hauek bi ildo jarraituz egingo dira: 5.edukiontzia eta konpostajea.
- **2013-2014 Eskolako Agenda 21:** proiektuan parte hartzen ez duten ikastetxeak gonbidatzeko eskutitza bidaliko zaie Udalei, hauek ikastetxetara zuzendu dezaten.
- **Batzar Nagusia S.L.** Datorren martxoaren 14an izango da.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** martxoaren 14an.